

Noaua !!



Oinezkoak nagusi
Autorik Gabeko Egunean



Justizia
ez da bidezkoa hemen

Marije

Arropa denda



Ekhebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL

KMDN
hizkuntzak

English courses

**Helduentzako ikastaroa
First Certificate prestatzeko
(arratsaldetan)**

Azken plazak!!!

informa zaitez!

943 37 14 02

Zubiaurrenea 6, ordutegia: 16h-20h

**Usurbil
Kantuz**

**Usurbilgo kantu taldea
2010**

Leuzi munduek
bago eta melak
munda tontor gainera
igo behar dugu.
ezazu, ezta bide izenra
gora gorra Euskal Herria.
Ez gogor al
gu euskaldunak gara
Euskal Herriak.


Hemen munda tontorrean
euskal herria gurea
ez da bide.

**Liburua salgai 3€tan
Noauan, Lizardin
eta Lauroken**



Noaua
www.noaua.com

Usurbilgo kantu taldea



Enar
ESTETIKA

**munalurra 2, Usurbil
943 571 680**

**FOTODEPILAZIO
ESKAINITZA:**

**2 ZONALDE AUKERATU
eto
1 BAKARRIK ORDAINDU**

Informa zaitez!

Depitotal

Albistea iruditan!!

Aldarrikapena eta giro ederra, Elkartasun Egunean

Presoen Eskubideen Aldeko Egunak, parte hartzeari dagokionean, herriko gazteak izan zituen protagonista nagusi larunbat arratsaldean burutu zen herri kirolen saioan. Patxi, Olatz, Ximio, Ramon, Jokin eta Xomorro, preso dauden sei herri-tarren izenekin, beste hainbeste talde osatu eta soka-tiran, aulki eta zapi jokoetan, zaku lasterketan edota lokotxak biltzen jardun zuten. Lagun koadrila desberdinek indarrak neurtu zituzten, eta ahalegindu ere, serio aritu ziren jokoan, nork puntu gehiago lortuko. Amaieran, herriko sei presoek eginiko lanak jaso zituzten oroigarri moduan.



ARGAZKIAN, HERRI KIROLETAKO PARTEHARTZAILEAK ETA ANTOLATZAILEAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordintzaileak: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ADINEKOAK OMENDUKO DITUZTE **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

EUSKALTEGIAN MATRIKULATZEKO ORDUA **8. OR.**

ELKARTASUN ASTEA, BEGIBISTAN **13. OR.**

TAILER UGARI SANTUENEAN **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

JOSETXO IKATZETA

 Iturgintza
 TELF: 943 36 20 26
 687 95 12 25

LAUKOTE

 OKINDEGIA
 KAFETEGIA
 Puntapax kalea, 16 behea
 (Artzabal). 943 36 09 80

ZUBIALURRENEA 4 USURBIL

 943361951

ANTXETA
 taberna-jatetxea
 ogitartekoak
 eguneroko menua
 plater konbinatuak
 EGUZKITZA, 4 · 943 370 344



ARITZ GORRITI

???????

Bi lagun denboraldi baterako urruneko herrialde batera doaz egunotan. Agurtzeko garaia heldu zaigu, azken afari eta solasaldiekin. Hegazkina hartu eta badoaz abentura berri bila. Paisaia, bizimodu eta ohitura desberdinak ezagutzera, bizimodu berri bat hastera... Jakinmina piztuko zaie, eta zaigu, bizitzear duten esperientziaren inguruan.

Jakinmina egoera berri bat delako, eta berria den neurrian, ezezaguna, pixkanaka, pausoz pauso deskubritzen joan beharrekoa. Jakinminak zalantzak eta argitzeke dauden galderak dakartza eta galderek erantzunak bilatzea helmuga duen lasterketa edo ibilaldia abiatzen dute. Lasterketa malkartsua, gorabeherak izango dituen. Nekea ekarri ohi duten aldapak, arnas eta indar berri eta abiadura hartzeko aukera emango duten jaitsierak, baita ibilbide alboetan-gertuago, urrunago-, une gazi-gozoetan aurrera jarraitzeko indarra emango dieten laguntzaileak. Hori guztia bukaera, helmuga ezagutu gabe.

Tarte horretan, lasterkari edo ibiltariak, erronka argia du aurrean; helmugan finkatutako helburua. Eta aurre egiten saiatu nahi du, helmuga baino bidea baita garrantzitsuen. Mugimenduak esperientzia edota heldutasuna emango dizkio, ibilerak ikasgaia baitakar; abiadura eta denbora kontrolatzen ikastea, urratuak zaintzea, ibilbide zati bakoitza

egoki osatzea, osasuna edo lehia lehenestea, okerretatik ikasi eta bide zuzena argiago ikusten laguntzea...

Bidean emandako pausoek, mugimendua diren neurrian, aldaketaren bidea zabalik uzten dute. Bideak, prozesuak, batzuetan espero gabeko, irudikatu gabeko panorama dakar. Helmuga argi izanda, bideak hartzen du indarra, eguneroko urratsek. Hasierako galdera eta zalantza nagusi edo nagusien barruan, sortzen diren eguneroko beste galdera txikiek. Erantzunak bilatzeko, bidea jorratzeko, nahi izatea, gogoia, borondatea behar da.

Mugimendua badabil gure herrian, gatazka konpontzeko bide bila. Borondate argia erakutsi dute hainbat eragilek. Pausoz pauso, urratsez urrats, galderaz galdera, erantzun bila doaz, aurrera, baiezkoarekin, gogotsu. Bada ordea, beste alde bat, galdera, adierazpen, pauso eta bestelakoen aurrean, entzungorrena egiten ari dena. Inork ezer adierazi edo galdetu aurretik, erantzuna badutena, ezezkotan daude. Hala noiz arte ordea? Mugimenduak aldaketa dakar, pausoak pauso berri bat eskatzen duen moduan, xakea edo antzeko jokoetako fitxa bat mugitzeak ingurukoak ere mugitzera bultzatzen duen tankeran. Aldakaitza aldagarri bihurtuko ote da? Baietak ezetzari irabaziko dio? Ibilaldia hasi da.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Elkartrukean oinarritutako azoka egin zen Txokoalden

Animaliak, barazkiak, edaria, arropa, jostailuak, liburuak... Denetarik aurki zitekeen Txokoaldeko Erroizpe elkarte pareko plazaren bueltan joan den igandean jarrita zeuden postuetan. Guztia, salerosteko ez, trukatu eta berrerabiltzeko baizik. Trukean oinarritutako azoka baitzen Txokoaldekoa, beraz, bertan euroek ez zuten lekurik. Bertso eskolako bertsolariek alaitu zuten goiza, eta girotu, trukatzera nahiz azoka ezagutzera bertaratutako herritarrek. Postuei dagokienez, Alkartasuna Nekazal Kooperatibaren, Usurbiltzen Elkartearen edota Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduaren parte hartzea azpimarratu behar da. Baina baita, etxetik eramandako

objektuekin zenbait herritarrek jarritako postuak ere. Bazkari herriko batekin borobildu zuten, Gipuzkoako Deshazkunde Taldeak antolatutako ekimena. Azoka ezagutzera joandako herritar bat baino gehiago trukatzeko gogoz geratu eta ganbaran gordeta izan eta erabiltzen ez dituen hainbat objektuez ere oroitu zen.

"Gutxiagorekin bizi, hobeto bizitzeko"

Nazioartean geroz eta oihartzun handiagoa duen deshazkunde kontzeptuaren inguruan antolatu dute estreinakoz, Txokoaldeko truke azoka. Antolatzailerak honela laburbiltzen zuten deshazkunde hitzaren esanahia: "Gizartearen neurriko



DESHAZKUNDE TALDEAK
ANTOLATU ZUEN AZOKA.

gizarte berri bat sortzea helburu duen mugimendu soziala da. Laburbilduz, gutxiagorekin bizi hobeto bizitzeko. Gutxiago kontsumitu, hobeto bizitzeko. Bizi maila hobetu, gutxiago kontsumitzen". Guztia, elkartrukea eta berrerabiltzea bultzatuta.

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAIA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAIA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: urriak 8. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 4.

Igande honetan, adinekoak omentzeko bazkaria

80 urte betetzen dituzten bazkideei, omenaldia eskainiko die Gure Pakea elkarteak. Aurten, 19 dira omenduko dituzten bazkideak. Igande honetan, "Atxega jauregian ospatuko dugun bazkari baten bitartez. Bertan omendutako pertsona bakoitzari oroigarri bat helaraziko diegu", hala esan digute Gure Pakeako kideek. Bazkaria 14:00etan hasiko da baina, urtero bezala, aurretik meza izango da eguerdiko 12:00etan.

Gure Pakeako Ikastaroak

Memoria lantzeko ikastaroa prestatu du Gure Pakeak. Irailaren 30era arte dago izena emateko epea, eta 17:00etan bilera bat egingo da, taldeak osatzeko.

Pintura ikastaroa, aldiz, urriaren 6an hasiko da eta ekainera arte iraungo du. Helduei zuzendutako ikastaro honetan oleoa, akrilikoa, akuarela, marrazketa, collage... tekniken bidez, paisaiak, erretratuak eta bestelakoak landuko dituzte, ikaslearen nahiaren arabera beti ere.



ARGAZKIAN, IAZ OMENDU ZITUZTEN BAZKIDEAK.

Gudariak gogoan izan zituzten irailaren 27an

Irailaren 27an, Gudari Eguneko ekitaldiak ez ziren oharkabeen pasa. Ezker Abertzaleak prentsa-ohar bidez adierazi duenez, "Euskal Herriaren alde bizitza eman duten gure gudariak gogoan izan ditugu; Joxe Martin Sagardia *Usurbil*, Jose Luis Segurola *Nazkaz* eta Joxe Mari Aranzazistroke *Arrantzale*. Udaletxe aurrean, Ugaldea industrialdean eta Kalezarren aurrekua dantzatu eta lore sorta bana utzi dira".



UDALETXE AURREAN
EGINDAKO EKITALDIA.

Urriaren 12an, Euskal Jaia ospatuko dute Zubietan

Abere azoka, trikitilariak, kantu-jira, herri bazkaria, erromeria... Egun ederra igarotzeko ekitaldi ugari prestatu dituzte Zubietan aldean. Herri bazkarirako txartelak urriaren 3a baino lehen erosi behar dira.

"Prestatu baserritar jantziak eta animatu zure ingurukoak festa honekin gozatzera". Hala diote Euskal Jaia antolatut

duen herritarrek. Goizetik izango da jai-giroa Zubietan. Euskal Herriko abere arrazen erakusketa egingo den bitartean, hamaiketako banatuko da. 12:00etan kantu jira egingo da eta, eguerdian, bazkaria. Oraindik astebete falta da baina bazkarirako txartelak lehenbailehen hartu behar dira. Barazar tabernan jarri dituzte salgai, eta urriaren 3a baino lehen erosi behar dira.



BARAZAR JATETXEAN DAUDE
BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI.

www.noaia.com
USURBILGO ATARIA

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

TAXI
677 37 34 66
943 36 69 69
Jose Etxabe (24h) USURBIL

AGINAGA

AITOR HELETA

San Praixkuak badatoz



Ia konturatu gabe udara joan zaigu. Lehenengo hotzak hasi dira baina lasai, hona hemen berriro San Praixkuak gorputza berotzeko. Bueltan datoz eta udazkena heltzearekin batera, Aginagako jaiak.

Astebukaera honetan hasteko, ostegun arratsaldeko 18:00tan Ariztitxo pilotalekuan badugu zer ikusia. Alde batetik, Emakume Pilotari, ezinduen erakustaldia eta Aginagako VIII. Txapelketako pala finala.

Hurrengo egunean txikienak prestatu daitezela etxerua bota ondoren buruhandiak aterako direlako. Gaueko 22:00tan esku pilota finalak eta ondoren kontzertua eliza zaharrean. Larunbatean, oilasko biltzaileen eguna izango da, goizeko 6:00etatik oilasko biltzen aritu ostean, ez dakit gorputzik izango duten gero arratsaldeko 16:00tan musean aritzeko. Seguru, baten bat animatuko da.

Igandean berriz tiro-platoa goizean eta arratsaldean urtero bezala frontoia betetzen duen ekitaldia, herritarren arteko herri kirolak. Aurpegi ezagunak, aurrez



aurre, gure artean tradizionalak diren jokoak norgehiagokarako; txingak, zaku eramatea, sagar bilketa, zaku altxatzea...

Hau, San Praixkuen hasiera baino ez da izango. Festek urriaren 4ko egun nagusiarekin eta bigarren asteburuko ekitaldiekin jarraituko baitute. Jendea ez da konturatzen hau dena antolatzeak zer nolako lana ematen dien jai batzordekoei. Horregatik hemendik mila esker.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Joxe Arregiri babesa



Kuriosoa da benetan ohartzea ezagutzen ez duzun pertsona batek zure miresmen osoa bereganatzen duela! Horixe hain zuzen ere niretzat betirako Arantzazuko Frantziskotarra izango den Joxe Arregirekin gertatu zaidana.

Munilla Jauna Gotzain izendatu aurretik, eta ondoren, iskanbila besterik ez da izan bere inguruan, edo hori da behinik behin guregana iritsi dena. Bere izendapenaren berri jakin zenean, oihartzun handia izango zuten hainbat eta hainbat kontrako iritziren berri izan genuen eta milaka pertsonak sinatu genuen idatzi bateratu bat helarazi zitzaion. Hein batean, herriaren zati handi bat berarekin ados ez zegoela jakin arazi zitzaion. Eta bapatean... ixiltasuna, erabateko ixiltasuna leku guztietan. Sumisioa ote? Beldurra agian? Edo obedientzia? Niretzat ulertezina erabat, edo ulertu nahi eza, hainbeste adierazpen hasieran eta batera ez gero. Eta horretan, Joxe Arregi frantziskotarraren erabakiaren berri egunkari guztietan. Agian ez da erabakirik zuzenena izango utzi eta joatea, ez, baina benetan, nire miresmen osoa lortu du. Ez joan egin delako, ez, baizik eta, bere printzipioen alde egin duela uste dudalako. Eredugarria, nire uste apalean.

SANTUENEA

JON ETXABE

Zer gehiago nahi dugu?

Irailak 20, astelehena, goizean goiz autobusaren zain dago jendea, lanera nahiz eskolara joateko. Denek dituzte begizuloak, festan aritzeagatik edota lo egin ezinagatik. Santueneko festak zitzu bizian pasa dira baina lorratz handia utzi dute auzotarrengan.



Batzuen ustez urterokoa da, baina urterokoa gustokoa bada... jarraitu dezagun usadioarekin! Globo gerra freskagarriarekin hasi ziren festak, txokolatada eta sardinjanarekin goseari eutsi eta gauean Black absenthe, Despervicio eta Odolaren Mintzoarekin kontzertua, Joxparen dantzaldiarekin jarraituta; hurrengo egunean haurren jolasak eta hauentzako bazkaria, mus txapelketa gogorra, Josunerekin kantu-afaria eztarria utzi arte eta eguna ederki amaitzeko DJ Larra!

Igandean berriz, toka eta hamaiketako, eguna ondo hasteko, eta herri bazkaria eguerdian. Arratsaldez, dantzariak, berbena "Hobaneuke"-koekin eta ilunabarrean piper-dastaketa eta txaranga. Eta noski, auzoko festei amaiera emateko, traka! Zer gehiago nahi dugu, santuenearrok?

ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

Ke beltzaren mamua



3:00 AM. Astegun buruzuria. Gaur ere mamu beltza segika daukat. Mamu beltza inoiz baino gertuago nabari dut gainera. Inoiz baino hurbilago dut.

Mamu beltzak ito egin nahi nau. Itotzen ari naiz, itotzen ari naiz... Kopeta izardi hotzez blai dudala iratzarri naiz. Amets gaizto hau darabilkit azken aldian. Ez naiz gure auzo honetan lo egin ezin duen bizilagun bakarra.

Atxegaldetarron amets gaiztoa, errealitate bilakatu zaigu azken aldi luze honetan. Osinalde industrialdetik datorren ke beltza urtez urte, hilabetez hilabete, astez aste, egunez egun, orduz ordu, minutuz minutu, segunduz segundu, gure osasunaren etsai bilakatu zaigu. A ze nolako etsai bortitza gainera. Ikara egoera batera ez gara iritsi, baino zer egin behar dugu hau guztia gelditzeko???

Salaketak hor daude, ebidentziak ere. Hemendik hamar urtera, estadistikak ikusi eta atxegaldetarron heriotz tasaren kausa garrantzitsuen minbizia dela ikus-tera ailegatu behar al dugu neurriak hartzeko?



Ez zait gustatzen alarmista izatea, baina gure osasuna jokoan jartzea, (galduta dugun partida batean), ez zait bidezkoa iruditzen. Herri honetan, herri lan haundiarekin, errauskailua ez jartzeko ari garen ahalegin haundiarekin, nola da posible muturren aurrean hau gerta-tzea? Ez dugu kutsaduraren gatibu jarraitu nahi. Osasuna atez ate, osasuna auzoz auzo! Errauskailurik ez, ez Zubietan ez Atxegalden, ezta inon ere!

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

e.liburuak



Atentzioa deitu zidan, lehengo batean, autobusean, liburu elektronikoa irakur-tzen ari zen neska batek. Atzeko eserlekuan andre bat egunkaria irakurtzen. Bata tresna berri batekin eta bestea paperean. Bata ohiko eran, bestea berrian. Liburutegira joan nintzen, ea zer esaten zidaten bertako adituek liburu elektronikoari buruz. Esan zidaten oraingo ez dituztela halako libururik, jendeak ez dituela eskatzen eta hauen etorkizuna oso airean omen dago. Beraiek emandako informazioaren arabera, hau izango litzateke une honetan liburu elektronikoa-ren egoera: alde batetik euskarri bat behar da liburu hauek irakurtzeko, oso garestia dena. Bestalde, hau dena bultzatzen duten bakkarrak argialetxe garrantzitsuenak dira. Kritika gogorrek jaso dituzte. Badirudi ez dutela interes gehiegi merkatu honetan eta zailtasun ugari jar-tzen dizkiote bezeroei. Idazleek berriz, etekin handiagoa aterako lukete era honetako liburuarekin, %40tik gora liburu bakoitzeko. Paperean idatzitako liburuetatik %10-15 jasotzen dute liburu bakoitzeko. Hemengo merkatua horrela badago, ez da berdina AEBean, non liburu merkatuen %10 liburu elektronikoa da. Alde tekniko eta ekonomikoa alde batera utzirik ez nuke imajinatu nahi liburutegi bat, edo liburutegia bat paperezko libururik gabe, hauek duten xarmarekin, paper ezberdinekin egindakoak, ilustrazio koloretsuekin, tapa deigarriekin...

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Badator berriro ere

Urtero bezala iritsi da egun hau. Egunak luzatzen hasiak dira, eguzkiak ere gutxiago berotzen du eta jadanik hotza nabari da. Uda amaitzeaz dago. Umeak hasi dira ikastolan; goiz esnatu beharra, etxeko lanak egin... Hasi da betiko errutina haurrentzat, baina baita gurasoentzat ere. Umeak ikastolatik jaso, kirolelara eraman, motxilak aldatu, berriro kirolelara umeen bila joan... Baina dena ez da txarra. Denok batera afaltzeko aukera, hurrekin hitz egiteko denbora gehiago, udan galdutako komunikazio haria berriro eskuratzeko aukera ere izaten da. Eguraldia ere moteltzen hasia da. Egunak laburragoak dira, euria ere maizago egiten du, tenperatura beheraka doa. Jadanik hasiak gara udako zapatilak alde batera uzten eta negukoak jantzen. Aterkia esku artean dugula ibiltzera ohitzeko ordua ere iritsi da. Eta hau dela eta gehiena nabaritzen dena baratzetako berde kolorea marroi bihurtzen hasi dela da. Baratzak gero eta hutsago ikusten ditugu. Amaituak dira letxugak, azelgak... eta amaitzeaz daude piperrak ere. Basoetako zuhaitzen hostoak ere ari dira nabarmentzen baratzetako lur sailetan. Badator beraz, aurtan ere, iaz bisitatu zigun udazkena. Udazken koloretsua.



Olatz Urdanpilleta, Etumeta-AEK euskaltegiko arduraduna

“Garrantzitsua da orain izena ematea”

Datorren astelehenean, urriak 4, hasiko dute ikasturte berria Etumeta-AEK euskaltegian. Matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du. Aurtengo eskaintzako berrikuntza nagusia, autoikaskuntza ikastaroa izango da. Euskaltegiko arduradun Olatz Urdanpilletak dakartza xehetasunak lerrootan.

NOAUA! Aurtengo matrikulazio kanpainaren leloa borondateari lotutakoa da; “Euskara, bai nahi dut”. Gogoia ezinbesteko baldintza baita euskara ikasteko?

Olatz Urdanpilleta. Euskara beti esan da zaila dela. Ez dugu esango erraza denik, baina gure artean denok ezagutuko dugu lor daitekeela erakusten duen adibideren bat. Euskara ikasten duenak berak irabazten du. Kulturen murgiltzeko, hizkuntzak beste perspektiba izugarria ematen du. Alde horretatik, garrantzitsua da bai euskalduntzea eta baita alfabetatzea ere. Dena da lorgarria. Lortzen duenak bakarrik daki.

AURTENGO ESKAINTZA

“Euskalduntze maila hastapenetatik EGArainoko ikastaroak aurreikusten ditugu, tartean, alfabetatzea ere bai”

N. Matrikulazio epea zabalik dago eta hala jarraituko du urte osoan.

O. U. Garrantzitsua da orain izena ematea, orain hasita aprobetxamendua handiagoa ateratzen delako. Gainera, HABE-k, gutxieneko ordu kopuru bat eskatzen du. Bestalde, beranduago izena emanda, talderik ez dago, edo talderik sortzerik balego ere agian ez da sortuko, horretarako ikasle gutxieneko kopurua behar baita. Halere, edozein arrazoigatik bada jendea orain izen eman ezin duena, edo ez dakiena. Aukera gero ere badute.

N. Zertan datza zuen metodologiak?

O. U. Helburua, ikaslea euskalduntzea da. Horretarako, gramatikako azalpenak



ETUMETA-AEK EUSKALTEGIKO ARDURADUNA DA OLATZ URDANPILLETA.

garrantzitsuak dira. Garrantzitsua da nik esan nahi dudana besteek ulertzea, eta era aberatsago batean, nahi dudana moduan adieraztea. Pedagogikoki ahalik eta baliabide gehienekin irakasten saiatzen gara; bideo eta elkarrizketak entzunez, irakurmena eta jokoen bidez... Ahalik eta aukera gehien ematen ditugu, klasean ikasteaz gain, baita ondo pasatzeko ere.

N. Alfabetatzea, euskaldun zaharrei zuzendua dago?

O. U. Premia denok dugu. EGA ateratzaera doan ere badaki, lana da euskaldun zaharrentzat ere. Bestalde, badira HABE-ren titulazioak ere; 1., 2. eta 3. hizkuntz eskakizunak eta EGA-ren balioak dena. Baina helburua euskara ikasten joan, eta garrantzitsua, erabiltzea da. Erabilpenaren inguruan hasi zen iaz Mintzalagun egitasmoa. Urtarriletik aurrera Usurbilen hasi zen eta arrakastatsua izan da. Talde dezente dabil, 40 inguru lagun dabilta, euskaldun zahar eta euskaldun berri. Printzipioz balorazioa ona izan da. Urria inguruan berriro hasiko dira. Mintzalagun egitasmoa ez da ikasleentzat bakarrik. Bada jendea euskaltegiara joateko premiarik ikusten ez duena, edo ezin duena, baina astean behin, mintzalagun hauetan parte hatze-

ko prest dagoena. Lekua du. AEK-ra deitu eta informazioa jaso. Doakoa da.

N. Autoikaskuntzan parte hartzeko gutxieneko maila bat beharko da?

O. U. Mintzamenerako gutxieneko gaitasuna behar dute. 1B mailatik gorakoei, eguneroko bizitzan gauza sinple sinpleak esan ditzakeenei zuzendua.

Tailerrak ere egiten dira ikasturtean zehar

NOAUA! Tailer desberdinak antolatu ohi dituzue, ekintza osagarri moduan. Zer nolako harrera dute?

Olatz Urdanpilleta. Pintxoiei buruzkoa, tai-chia, diapositibak... Tailer ezberdinak egin ditugu. Kanpoko jendea ekartzea komeni da, euskaraz beste zerbait egiteko, beste ahots bat izateko. Ikasleei galdetegi bat pasatzen diegu, zer tailer nahiko luketen jakiteko. Lehentasun horien barruan, interesgarriena iruditu den hori, bi hilabete behin edo egiten saiatzen gara.

Autoikaskuntza, “bizimodu modernoari” egokitze ahalegina



NOAUA! Autoikaskuntza, aurtengo nobedadea duzue?

Olatz Urdanpilleta. Bizitza moderno honek dakarrena da, lana txandaka egitea. Askotan okupatuta egoten gara, klaseetara ezin gara beti joan. Usurbilen duela hiruzpalau urte zerbitzu osagarri bat abiatu genuen. Klaseetara etorri ezin zuenarentzat, beste ordutegi batean, zerbitzu bat ematen zen; mintzamenerako ordubete, eta beste ordu batzuk gramatikarako. Hala egon gara urte batzuetan. Baina ikusten genuen beste leku batzuetara joaten zela jendea. Aurten, Udalaren babesarekin autoikaskuntza martxan jarztera ausartu gara. Bakoitzak nahi duen lekuan egiten ditu lanak, gelak libre iza-

nez gero euskaltegian, edota etxean. Baina diziiplina handia eskatzen du. Lan horietarako hiruhilabeteko plangintza bat egiten da, ikasle horren beharrak kontuan izanik. Astero ordu erdiko tutoritzak izaten dira eta bi orduko taldeko mintza saioa.

Ilusioz hasi nahi dugu, ia zer arrakasta duen. Batzuk badakigu interesatu direla, izena batek edo bestek eman dute. Inguruko herri gehienetan bada-go eta zerbitzu modura ondo baloratu da. Oso medio interesgarria da, baina beti ere klaseetara etorri, irakaslea eguneroko ondoan izan edo talde batean egote horrek dakarren giroa aberasgarriagoa da.

Astelehenean hasiko dira klaseak euskaltegian

Etumeta-AEK euskaltegiko Eskaintzan izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. Astelehenetik ostiralera, goizez, 11:00-13:00 artean eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean euskaltegia bertara hurbilduta.

Matrikulazioa nola egin

Matrikulaziorako edota gai horren inguruko informazio gehiago jasotzeko, badira beste bi komunikazio bide ere: 943 372 001 eta usurbil@ae.org e-postako helbidea. Ikasturte berria urriaren 4an abiatuko dute.

Mintzalagun, laster martxan

Ohiko ikastaro eskaintzarekin batera, zenbait tailer antolatuko ditu euskaltegiak ikastaroan zehar. Eta noski, iaz abian jarri zen Mintzalagun ekimena ere laster martxan jarriko dute berri. Euskaldun zahar eta berri, guztira 40 lagun inguruk parte hartu zuten iaz, euskararen erabilera sustatzea helburu duen egitasmoan.

Tren-bus ordutegi gehiago nahi?

Pasa den astean, NOAUA! astekariarekin batera, 2010-2011 ikasturteari dagokion tren-bus ordutegia banatu genuen. Poltsikoan eramateko moduko argitalpen honetan, tren eta autobus ordutegiak bildu ditugu (EuskoTren, Lurralde Bus eta TSST zerbitzuen ordutegi guztiak). Hauekin batera, Usurbilen martxan den Bus-Taxi zerbitzuaren ordutegia.

Ale gehiago eskura ditzakezu udal-erregistroan eta NOAUA!ko bulegoan.



**POLTSIKOAN ERAMATEKO
MODUKO ARGITALPEN HAU
DOAN BANATU DUGU.**

Igande honetan, Kilometroak festa Pasaian eta Lezon

Igande honetan, urriak 3, Kilometroak jaia Pasaian eta Lezon. Bertan lanean aritzeko jende premian dira.

Kilometroen antolamenduan (txosna, trafikoa...) laguntzeko moduan bazaude, jarri harremanetan Iñaki Ugarterekin (600 277 380, duela bi aste NOAUA!n telefono zenbakia gaizki zegoen; hau da ego-kia).

Nahi bai, baina ezin

Seme-alaba jaioberriak euskaraz inskribatzeko arazoak Epaitegian

Eskubidea izan bai, legediak aitortua gainera, baina gero eguneroko bizitzan ezin aplikatu, baliabide faltagatik. Egoera horretan aurkitzen dira, haur jaioberriak euskaraz inskribatu nahi dituzten gurasoak; euskaraz inskribatu ezinik alegia. Hizkuntz eskubide urraketa hau salatzeraz eta inskribapenak euskaraz egitera deitu zuten guraso, udal eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiko ordezkariak, joan den irailaren 23an udalbatza aretoan eskaini zuten prentsaurrekoan.

Ezohiko prentsaurrekoa izan zen joan den ostegunean udalbatza aretoan burutu zena. Hizlari lanetan jardun zutenez gain, eta gurasoei batera, Usurbilen jaio berriak ziren hiru haur baitziren ekitaldiko protagonistak. Usurbilgo eta beste hainbat udalerrietako sendiak ordezkariak zitzaketen. Euskaldun gisa, jaio bezain laster haur txiki hauei eta euren gurasoei lehen eskubidea urratu baitiete jada. Gaur egun, Usurbilen eta Euskal Herriko udalerririk gehienetan gurasoek lekuan lekuko Bake Epaitegietan ezin dituzte seme-alabak euskaraz inskribatu.

XABIER MIKEL ERREKONDO

“Jaiotzen garen une beretik urratzen zaigu euskaraz bizitzeko eskubidea”

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, hamalau barruti judizial buruetan baino ezin da burutu aipatu tramitea; Araban bi lekutan, Bizkaian sei guneeetan eta Gipuzkoan: Azpeitian, Bergaran, Donostian, Eibarren, Irunen eta Tolosan baino ez. Prentsaurrekoan gogorarazi zutenez, bada legediak jarritako beste muga bat ere; haurra, jaio den lekuan edo gurasoak bizi diren udalerrian baino ezin dira inskribatu. Xabier Mikel Errekondo alkateak prentsaurrekoan adierazten zuenez, “gure herrian euskaraz bizi nahi dugu, baina haxe paradoxa. Jaiotzen garen une



ALKATEAK ETA HAINBAT KALTETUK PRENTSAURREKOA ESKAINI ZUTEN.

beretik urratzen zaigu euskaraz bizitzeko eskubidea”. Eskubideak bermatu beharrean, alkateak ukatzea egotzi zion administrazioari.

2005etik legeak aitortua

Datuok Hizkuntz Eskubideen Behatokiak helarazitakoak dira. Aipatu erakundeko arduradun Garbiñe Petriatik joan den asteko prentsaurrekoan berri ematen zuenez, gai honek “kexa eta amorru ugari sortu du”. Azken urteotan, Behatokitik gai honi lotutako salaketa eta kasu ugari administraziora bideratu direla zioen.

Are gehiago, duela bost urtetik legeak haurrak euskaraz inskribatzeko eskubidea aitortua duela jakinik. 2005eko ekainaren 22an 1957ko Erregistro Zibilaren Legeari dagokion 23. artikulua aldatu zutela gogorarazi zuen Behatokiko ordezkariak prentsaurrekoan. Aldaketa horrek, EAE-n zegoen hizkuntz ofizialtasun bikoitza, Petriatiren esanetan, “Erregistro Zibilera ekartzea zuen helburu”. Ondorioz, legearen arabera, une hartatik guraso bakoitzak du kasu honetan, seme edo alaba jaioberria inskribatzeko hizkuntz ofizialeko bat aukeratzeko eskubidea.

Legea alde, baina bermerik ez

Baia aipatu eskubidea gauzatze-ko baliabideak falta direla gaur egun, horixe izan da Behatokiari administratibotik helarazi zaion mezua. “Esan dute legea garatu behar dela, baliabide materialik ez dutela, denbora behar dela egokitzeko, euskararen legea bera aldatu behar dela...”, azaltzen zuen Behatokiko ordezkariak. Gaineratzen zuenez, 2008an Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak eta Justizia Ministerioak arestian aipatutako hamalau barruti buruetan haurrak euskaraz inskribatzea ahalbidetuko zuen aplikazio informatikoa jartzeko hitzartu zuten.

Bi aldeok 2009an bigarren hitzarmen bat sinatu behar zuten, Behatokitik gogorazten dutenez, “gainerako bake epaitegi eta erregistro zibiletan aplikazio hori instalatzeko”. Aldiz, bigarren hitzarmenik ez dute sinatu eta ordutik gai honetan ez da bestelako pausorik eman.

Hortik dator gaur egungo egoera; aplikazio informatikoa hori instalatua dagoen hamalau guneeetan baino ezin dira haurrak euskaraz inskribatu. Behatokiko arduradunak ondorioztatzen zuenez, “2005ean legea onartu zenetik oso aurrerapauso eskasak eman dira eta azken bi urteotan batere ez”.

“Denak animatuko nituzke, gure eskubide bat da”

2007. urtean jaio zen Mariren semea. Prentsaurrekoan gogorazten zuenez, “ez ginen konturatu ere egin haurra erdaraz inskribatu genuenik. Handik gutxira irratian entzun nuen Aretxabaletan lortu zela lehen haurra euskaraz inskribatzea. Bigarreneko aukera izango zela esan genuen”. Une hartan, haurdun zegoela, Bake Epaitegira jo zuen eskaria egin eta haurra jaiotzeko dokumentazio guztia prestatzera. “Han esan zidaten, Usurbilen bakarra nintzela hori eskatzenua eta inskribatzeko programa informatiko hori ez zutela eta ezin zutela euskaraz egin”, adierazi zuen Marik. Inskribatzeko, besteak beste, Donostiara joatea proposatzen zioten.

Mariren bidez izan zuen gaiaren berri Arantxa Usarralde ere eta tramitazio lanei ekin zien. “Epaitegira joan nintzen, eta esan zidaten dena erdaraz

zegoela. Ez zegoela euskaraz. Idatzi bat sartu genuen, esanez haurra euskaraz inskribatu nahi genuela”, adierazi du. Gainerakoak ere berak emandako pausoa ematera gonbidatzen ditu: “denak animatuko nituzke, azkenean gure eskubide bat da. Orain gainera haur jaioberri pila daude”.

Eli Udabe prentsaurrekoan parte hartu zuen gurasoak ere, jende osoa animatzen du, udalak ematen duen laguntzagatik eta bere esanetan, “bakan batzuk egin baino jende gehiagok egiten badu, egoera aldatzeko aukera errazago ikusten dut”. Bere kasuan haurra jaio baino hiru hilabete lehenago paperak entregatu zituela oroitzen du. “Erantzuna hilabete lehenago jaso genuen, erdaraz. Programa informatiko bat falta zutela eta halako auto bat”, dio Udabek. Gero, Udala eta Behatokiaren bidez kexua aurkeztu zuten. Hizkuntz eskubide urraketen hiru kasu argi.



BESTE BATZUK BEZALAXE,
HAURRA EUSKARAZ INSKRIBATZEKO
ARAZOAK IZAN DITU MARIK.

Gai honi lotutako mozioa, iraileko osoko bilkuran

Astearte honetan, irailak 28, hileko osoko ohiko bilkuran gai honi lotutako mozioa aurkeztekoa zen udal gobernu taldea, eztabaidatu, bozkatu eta onartu ostean, Usurbilgo Bake Epaitegira eta Erregistro eta Notaritza zuzendaritzara helarazteko eta alkatearen esanetan, “berehalako neurriak hartzea exijitzeko”. Behatokitik ere egungo oztopoak gainditzeko neurriak ahal bezain laster hartzea exijitzen dute.

Udala, aholkulari

Bestalde, hizkuntz arloko edozein eskubide urraketa dela eta, iaz NOUA!-n, Oiardo Kiroldegian, udal erregistroan, Sutegi udal liburutegian edota Urbil merkataritza gunean jarri ziren postontzietako batean hizkuntz eskubide urraketei lotutako kexak utzi daitezke. “Animatu herritarrek salaketa horiek jarri eta euskararen alde eragitera, eskubide urraketa horiek gehiago eman ez

daitezen”, deitu zuen alkateak.

Errekondok kexuak aurkeztu eta haurra euskaraz inskribatzeko pausoa eman dutenak eskertu zituen, hori zela bidea gogoraraziz. Herritarrek aurkeztutako kexak Udala bideratzen ari da, Behatokiarekin batera. Aholkularitza eskaintzeko asmoa du kexak aurkeztzen dituztenei.

UDALAREN JARDUNA

“Herritarren kexak Udala
bideratzen ari da,
Behatokiarekin batera”

Aurrera begira, interesdunei zuzendutako gomendioa. “Inskriba ezazu zure seme-alaba euskaraz eta horretarako egin ezazu ahalegina edo eskaera aldeztu aurretik”, adierazi zuen Behatokiko ordezkariak.

Bergarako Liburu Bereziaren kasu bitxia

Oztopo guztien gainetik, duela hiru urte, herritarrek eta Behatokiak eskaera ugari egin ondoren, haurrak euskaraz inskribatzea ahalbidetzen zuen Liburu Berezia zabaldu zuten Bergarako epaitegian. Pauso honi esker, Aretxabaletako haur bat euskaraz inskribatu ahal izan zuten lehen aldiz. Aurrerapausotzat jotzen duten liburu hura ordea, hilabete gutxira itxi zuten. 2008ko martxoan Bergarako epaitegikoek liburu horren inguruko kontsulta egin zioten erregistroen eta notariotzaren zuzendaritza nagusiarri.

Kontsulta hark oraindik ez du erantzunik jaso. Horrek eragin zuena izan du Liburu Berezi horretan. Behatokiko ordezkariak oroitarazten duenez, “2007an zabaldu zen bide hori, kontsulta horren ondotik itxi zen. Kontsulta horrek erantzunik ez zuenez, erantzuna izan bitartean ez dira umeak euskaraz erregistratzen, ezta liburu berezi horretan ere”.

Aginagakoak izerdi patsetan, igandeko herri kirol saioan

Oraingoan etxeakoak lehian jarriko dituzte antolatzaileek. Tradizio luzea duen herri kirolak burutuko dira igande arratsaldean San Praixkutan. Herritarrek euren artean indarrak neurtuko dituzte, lokotxak biltzen, edota zakuak garraiatzen.

Zurien eta urdinen taldeetan banatuta, aurpegi ezagunak izerdi patsetan amaituko dute, ziur, datorren igande arratsaldea. Aginagarrek ez baitituzte nolanahiko probak gainditu beharko, San Praixkutan antolatu den herri kirol saioaren barruan; bi itzulietan lokotxak biltzea, sagarrak bilketa, 20 kolpeetan oinarrituko den ingude proba, txingekin itzuli bana egitea, trontzan hiru ebaki egitea...

Aizkolarien parte hartzea ere aurreikusia zuten antolatzaileek, baina azkenean, haren ordeztu, zaku altxatze proba burutuko da. Proba irekia izango da, beraz edonork parte hartzeko aukera



NOR BAINO NOR ARITUKO DIRA IGANDE ARRATSALDEAN.

izan du. Eguna afari eder baten bueltan amaituko dute, antolatzaileek berri eman dutenez. Hitzordua, igande honetan, 17:30ean Aginagako frontoian.

Herri bazkari eta bertso afarirako txartelak salgai

Asteburu honetan jarriko dituzte salgai, urriaren 10ean burutuko den herri-bazkarirako txartelak. Helduen bazkari-

rako tiketak 20 eurotan eta haurrenak 15 eurotan. Tiketak salgai Sekañoan eta Arrate Zahar Etxean.

Bestalde, urriaren 8an ospatuko den bertso-afarirako ere aldeztu aurretik izena eman beharra dago. Bi telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da, arratsaldezt: 680 347 768 (Leire) eta 686 820 329 (Ane). Izena emateko azken eguna, urriaren 7a.

San Praixku jaiak, egunez egun

IRAILAK 30 OSTEGUNA

18.00 Emakume Pilotari, ezinduen erakustaldia, Aginagako VIII. Txapelketako Pala Finala: Imanol Esnaola - Xabier Errasti / Unai Loidi- Josu Errekondo.

URRIAK 1 OSTIRALA

18.00 Jaien hasiera, etxatzeri eta buruhandiekina.
22.00 Aginagako VIII Txapelketako esku pilota finalak.
00.00 Eliza Zaharrean: Odolaren Mintzoa, Gaueko Itzalak, Trikihots.

URRIAK 2 LARUNBATA

OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

06.00 Oilasko biltzaileen gosaria.
06.30 Oilasko biltzaileen irteera.
16.00 XXX. Mus Txapelketa herrikoia (izen ematea 15:30).
00.00 Garabi taldea. Atsedendaldian maleta karrera.
Ondoren Joxpa taldearekin dantzaldia.

URRIAK 3 IGANDEA

